


ARTEA. Aukeraturiko erakusketak arte barrokotik gaur egungo sormen lanetara doaz



ARNOLD NEWMAN

Alexander Calder (1898-1976) izango da hurrengo urteko protagonistetako bat Guggenheimen.

Calder, Barney, eta Parisko zein Brasilgo artea bilduko ditu Guggenheimek 2002an

laz egin bezala, aurtengo Aste Nagusian zehar pinakotekak jazz kontzertuak zein dantza emanaldiak jasoko ditu

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Jadanik datorren urtean Guggenheim museoak izango duen programazio artistikoa erabat finkaturik dago. Herenegun pinakotekako Fundazio Patronatuak eginiko bileran erabakitakoaren arabera, aldi baterako lau erakusketek bisitatuko dute titaniozko museoa: *Brasil: arima eta gorputza*, Alexander Calder,

Matthew Barney: ziklo kremasterikoa, eta *Paris: arteen hiriburua 1900-1968*.

Hegoamerikako herrialdearen sustrai artistikoak zein joera garaikideak biltzen dituen erakusketa da *Brasil: arima eta gorputza*. Guggenheimek bilduko dituen 350 artelanen bitartez, barrokoaren adierazle izan ziren XVII-XVIII. mendeetatik gaur egun arte Brasilgo sorme-

nak izan duen eraldaketa prozesua ikusgai egongo da. *Alexander Calder* erakusketak, berriz, iragan mendeko artista handiari omenaldi bat egin nahi dio. Alexander *Sandy* Calderrek (1898-1976) txikitatik erakutsi zuen sormenerako grina. Izen handiko artisten seme, haurtzaroko urteak berarentzat zein arrebarentzat jostailuak diseinatzeko igaro zituen. Berak zioenez, ohiko panpinek erabat aspertzeko zuten. 1919an ingeniari titulua eskuratu zuen, baina ez zen sekula lanbide hura betetzera heldu. Horren ordean, arte ikasketak burutu zituen New Yorkeko akademia batean.

OMENALDIA

Alexander Calderri eskainitako erakusketak artearen kontzeptua irauli zuen gizonaren ibilbidea azpimarratu nahi du

ANIZTASUNA

Brasilgo sustrai artistikoen, Barneyren lan erotikoen zein Parisko joera esanguratsuenen lekuko izango da museoa

1926an *Cirque Calder* izeneko *performance*-a antolatu zuen Parisen, eta 1930. urte amaiera aldera sortzaile ospetsu bihurtu zuen eskultura abstraktu eta mugikorra lantzeari ekin zion. Guggenheim museoak jasoko duen erakusketak Calderren obrarik esanguratsuenak bilduko ditu.

Erotismoa eta Paris

Gorputzaren, sexualitatearen eta erotismoaren gaineko ikerketa dira Matthew Barneyren (1967) lanak. *Performance*-ak, bideoak eta eskulturak nahasten dituen artista horrek ibilbide polemiko bezain emankorra jorratu du 1994an sormen lanean buru-belarri sartu zenetik. Hori guztiaren erakusle izan nahi du *Matthew Barney: ziklo kremasterikoa* erakusketak.

Helburu zein estilo arras bestelakoak erakutsiko ditu aurrekoaren lekukoa hartuko duen *Paris: arteen hiriburua 1900-1968* bildumak. 1900. urtean Parisen antolatu zen Nazioarteko Erakusketari esker, mundu osoko artisten bilgune bilakatu zen Frantziako hiriburua. Lau epeetan banaturik, Bilbon egongo diren obrek mugimendu garrantzitsuenak adieraziko dituzte: Montmartre: abangoardiaren jaioliekua *1900-1914*, *Montparnasse: plazeraren hiria 1920-1939*, *Saint Germain des Pres: berberaikitzea eta birsortzea 1940-1957*, eta *Auzo latinoak: artea eta barrikadak 1958-1968*.

Bestalde, bigarren urtez jarraian, aurtengo Aste Nagusian zehar zenbait ekitaldi antolatuko ditu Guggenheim museoak. Abuztuaren 20tik 24a bitartean, Iñaki Salvador trio, Infussion, Victor de Diego group eta Jon Urrutia trioren eskutik gauero jazz kontzertu bat entzuteko aukera egongo da. Hilaren 25ean, berriz, Suediako ELD dantza taldeak koreografia bat antzeztuko du museoaren titaniozko egitura-aren gainean.

LITERATURA

Nafarroako Gobernuaren sariak banatu dizkie ikasleei Jesus Lagunak

Erredakzioa | IRUÑA

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Sailak Nafarroako ikasle-teeetako ikasleentzat eraturitako literaturako, dialektologia-etnologiako eta euskarazko deklamazioko sariak banatu zituen atzo Jesus Laguna kontseilariak.

Literatura arloan 500dik gora lan aurkeztu dira, eta honako ikasle hauek izan dira sarituak: Lehen Hezkuntzan, Iñaki del Rio ipuinetan, Maite Izko narratibaren eta Ion Etxabarri poesian; Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan, Maitane Casal ipuinetan, Maider Etxeberria narratibaren eta Idoia Arraiza poesian; Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, Iosune Bertiz ipuinetan, Miren Rubio narratibaren eta Maite Elorz poesian.

Euskal idazle ezagunak izan dira sarietako epaimahaikideen artean: Jose Mari Satrustegi dialektologia-etnologiakoan, Patxi Ezkiaga literaturakoan eta Felipe Juaristi euskarazko deklamaziokoan.

Liberalizazioak eragin kalteen balorazioa egin dute Bizkaiko liburusaltzaileek

Erredakzioa | BILBO

Eskola liburuen behearpenen liberalizazioa uste baino eragin txikiagoa izaten ari dela adierazi du Kepa Torrealda Bizkaiko Liburusaltzaileen Elkarte-ko lehendakariak. Hala ere, neurri ertaineko liburudenda guztietan kalte handiak eragin ditu liberalizazioak, Torrealdairen ustetan.

«Liberalizazioak mesede handia egin die azalera handiko merkatari zentroe», esan du Torrealdaik. «Askok beste produktu batzuen salmenta bultzatzeko erabili dituzte beherapenak».

Liberalizazioaren erruz liburudenda askok itxi beharra izango dute, Torrealdairen ustez.